Usurbilgo Udala

USURBILGO SUTEGI LIBURUTEGIKO IRAKURKETA GELAREN BERRIKUNTZA GAUZATZEKO OBRA KONTRATUA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

PROZEDURA IREKIA ETA IZAPIDE ARRUNTA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza hauetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea USURBILGO SUTEGI LIBURUTEGIKO IRAKURKETA GELAREN BERRIKUNTZA GAUZATZEKO OBRA KONTRATUA izango da, Daniel Carballo Ostolaza arkitektoak, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko kide denak, idatzitako Egikaritze Proiektuari jarraiki, kontratuzko izaera izango duena.

KHA kodetzea:

- 45210000-2: Higiezinak eraikitzeko lanak.
- 45443000-4: Fatxadako lanak.

2. EGIKARITZE EPEA

Kontratazio honetako obretarako gehienezko egikaritze epea HIRU(3)HILABETEKOA izango da gehienez guztira.

Abuztua ere lan-hilabetea izango da.

Kontratatutako enpresa berandutze egoeran egongo da kontratuan aurreikusitako epea igaroz gero, eta Administrazioaren aldetik ez da ohartarazi beharrik izango.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren balio baloietsia 122.327,82 euro dira, BEZ kanpo, gehi %21 BEZ, 25.688,84 euro, hau da, guztira 148.016,66 euro.

EXEKUZIO MATERIALEKO AURREKONTUA (EMA)	102.796,49 euro
Gastu Orokorrak (% 13)	13.363,54 euro
Industria-mozkina (% 6)	6.167,79 euro
KONTRATAREN EXEKUZIO AURREKONTUA	122.327,82 euro
B.E.Z.(%21)	25.688,84 euro

GUZTIRA, LIZITARIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA	148.016,66 euro

Kontratuaren prezioan unitate-prezioen zerrenda bat jasoko da, bere proposamen ekonomikoan adierazitako beherapen portzentaje berarekin.

Behin kontratua esleituta, kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak prezioan sartzen direla ulertuko da, baita garraio eta instalazioarekin lotutakoak ere.

4. FINANTZAZIOA

Udalerako kontratua betetzetik eratortzen diren betebeharrei heltzeko behar adina kreditu dago aurrekontuan.

Halaber, aurrekontuari dagokionez eskumena duen organoak eragindako etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak gordetzeko konpromisoa hartzen du.

Zehazki, Udal Aurrekontuetan jasotako partida eta urte hauen kargura finantzatuko da:

- 1.6000.622.332.10.01(2021): 86.527,47 euro
- 1.6000.622.332.10.01(2022): 65.000 euro

5. ORDAINKETA MODUA

Egindako obrak hileroko ziurtagirien bidez ordainduko dira, eta ziurtagiriok obren zuzendari fakultatiboak egingo ditu.

Behin faktura onartuta, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 198. artikuluan legez aurreikusitako epeen barnean ordainduko da.

Enpresa kontratistak formatu elektronikoan aurkeztuko ditu fakturak, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (FSPOe) (https://gfaegoitza.net/SarreraPuntua), udal aurrekontua egikaritzeko arauan xedatutakoaren arabera, 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa bultzatu eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza erregistroa sortzekoa, betez.

Unitate organikoen DIR3 kodeak: **Usurbilgo Udala:**

- Organo kudeatzailea: LO1200739
- Izapidetze unitatea: LO1200739
- Kontularitza bulegoa: LO1200739

6. PREZIOEN BERRIKUSKETA

Obra kontratuko prezioak moldatu ahal izango dira ondorengoek diotenaren arabera. Batetik, martxoaren 1eko 3/2022 Errege-dekretuak. Bestetik, Gobernu Kontseiluaren 2022ko apirilaren 5eko Erabakiak. Erabaki horren bidez, martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretuaren II. titulua aplikatzea erabaki da (3/2022 Errege Lege Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko obra-kontratu publikoetan prezioak berrikusteko ezohiko neurriei buruzkoa)(Gobernu Kontseiluaren 2022ko apirilaren 5eko Erabakia EHAA aldizkarian argitaratua, apirilaren 29, 82. zenbakia).

7. BERMEAK

7.1.-BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen

7.2.- BEHIN-BETIKO BERMEA

Hartutako betebeharrak beteko dituela bermatze aldera, enpresa esleipendunak behin betiko berme bat eratu beharko du. Berme horren zenbatekoa esleipen-zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZ aparte.

Kontratuaren esleipendun den enpresaren proposamen ekonomikoa hasiera batean anormal edo neurriz kanpokotzat jo izan balitz, ondoren onartua izateko, aurreko bermea ez ezik, beste gehigarri bat eratu beharko du, esleipen-zenbatekoaren % 5ekoa. Horrela, berme osoa kontratuko prezioaren % 10ekoa izango da.

Aipatu bermea eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 108. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz eratu ahal izango du, eskudirutan jarritakoak izan ezik, horiek Usurbilgo Udalaren edozein kontu korrontetan sartu behar dira eta.

Bermea, osoa nahiz partziala, aipatu Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 111. artikuluan xedatutakoa betez itzuliko da, behin berme-epea amaituta eta enpresa esleipendunak kontratuzko betebehar guztiak bete dituenean.

II.- KONTRATAZIOA EGITEKO PROZEDURA

8. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onena zein den erabakitzeko, esleipen irizpide anitzak baloratuko dira, guztiak formula bidez kalkulatzen direnak.

MODU AUTOMATIKOAN ZENBATETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: gehienez 75 puntu (“C” artxibo elektronikoa)

8.1.- PREZIOA (0-55 puntu)

Eskaintzen balorazioa ondoren zehazten den formula matematikoaren arabera egingo da:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{Pb}{Po} \times 55$$

Po= Balioesteko eskaintza ekonomikoa

Pb= Eskaintzarik baxuena

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren) 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak eta 9/2017 Legeak azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuaren 149. artikuluak aurreikusten duena jarraitu beharko da.

8.2.- BERME-EPEA LUZATZEA (0-20 puntu)

Horrela balioetsiko da (tarteko epeak edo urtebetetik beherakoak ez dira balioetsiko):

- Urtebeteko bermea (legezko epea): 0 puntu
- Guztira 2 urteko bermea (legezko epea baino urte 1 gehiago): 10 puntu
- Guztira 3 urteko bermea (legezko epea baino 2 urte gehiago): 20 puntu

BALIOESPEN TEKNIKO BATEN BAITAKOAK DIREN IRIZPIDEAK: gehienez 25 puntu ("B"artxibo elektronikoa)

Lizitatzaileek ez dute, inolaz ere, "B" artxibo honetan datu ekonomikorik adieraziko, ezta formula bidez automatikoki balioetsi daitezkeenik ere.

8.3.- MEMORIA TEKNIKOA (0-13 puntu)

Lanen gauzatze proposamen orokorraren planteamendu argia egitea eskatzen da azterketa honekin. Obraren zailtasunak aipatu, deskribatu eta estudiatuko dira. Halaber, obraren gauzatze lanek sortu ditzakeen eragin eta interferentziak aztertuko dira eta beraien arteko erlazioa. Esleitu lanetarako deskribaturikoa zuzena, zehatza, arrazoitua eta egokia dela baloratuko da:

- Proiektuaren analisia: gauzatze lanen deskripzio orokorra nola gauzatuko diren eta lanen ordena eta proposamenak arrazoituaz (6,5 puntu).

- Obraren zailtasun nagusiak identifikatzea puntu kritikoak definituaz eta zailtasunen aurrean hartuko diren jarraibideak azalduaz eta arrazoituaz (6,5 puntu).

8.4.- GAUZATZE LANEN PROGRAMA(0-10 puntu)

- Lanen gauzatze planteamendu espezifikoa. Kontutan hartuko da obraren ezagutza eta antolakuntza (4 puntu).

- 3 hilabeteko epea betetzeko erabiliko den planifikazioa, epe partzialak eta hauek betetzeko baliabideak. Obra atzerapenak berreskuratu eta gauzatze epea eguneratzeko baliabideak. Obraren planifikazioaren jarraipena errazteko baliabide edo metodologia (3 puntu).

- Proiektuan izan litezkeen akats edo zehazgabetasunak identifikatzea eta hauek zuzentzeko proposamenak (3 puntu).

8.5.-PROPOSATUTAKO HOBEKUNTZA TEKNIKOAK ETA INGUMENEKOAK (0-2 puntu)

- Hobekuntzak obraren gauzatzean segurtasun faktorea handituko duena (1 puntu).

- Hobekuntza teknikoa, esleitutako azpiegituraren amaierako kalitatea hobetuko duena (1 puntu).

Memoriak gehienez A4 formatuko 10 orri izango ditu. Bi aldeetatik idatziak Arial 11 hizkiarekin; azalak, aurkibideak, argazkiak eta antolakuntza eskemek ez dute orri idatzi lez kontatuko.

Baldin eta aurkeztutako “memoria teknikoa” dokumentuak gainditzen badu, oro har,adierazitako orrialde kopurua, memoriari dagozkion balioespen-irizpideak orri kopuruaren mugara arte soilik balioetsiko dira. Orrialde kopuru horretatik aurrera 0 puntu emango dira.

9. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA

Kontratatzeko prozedura honetan parte hartu ahalko dute, gaitasun juridikoa nahiz jarduteko osoa izanik, beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoek, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikuluan kontratatzeko ezartzen diren debekurik ez dutenak.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordeztuta aurkeztu ahalko dira, horretarako emandako nahiko ahala duena. Pertsona juridiko bat ordeztuz hartako kideren bat aurkezten denean, pertsona horrek dokumentuekin justifikatu beharko du horretarako gaitasuna duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari kontratatzeko ezintasun kausa horiek eragiten die.

Gainera, pertsona juridikoek kontratu honetako xedearekin harreman zuzena duten jarduerak burutzea izan behar dute helburutzat, eta kontratua behar bezala egikaritzeko behar adina elementu pertsonal zein materialekin hornitutako antolaketa bat izan beharko dute.

Kontratatzeko ahalmena eta kaudimena ENPRESA ESLEIPENDUNAK SOILIK egiaztatuko du, dokumentu hauek aurkeztuta:

<u>9.1.- Enpresariaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren izaera juridikoa egiaztatzeko dokumentuak.</u>

Izaera egiaztatzeko honakoak aurkeztu beharko dira:

- Nortasun Agiri Nazionala pertsona lizitatzaileak bere izenean jarduten baldin badu.

- Beste pertsona edo erakunde bat ordezkatuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze-eskritura aurkeztu beharko dira. Dokumentazioa kalifikatzeko egintzan, botere-askiespenera joko da, ofizioz.

- Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, inskripzioa aplikagarri den merkataritzako legeriaren arabera eskagarria denean. Hori eskagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estatuen edo fundazio aktaren bitartez egiaztatuko da, horretan jasota egongo baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien Erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira. Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresari ez espainiarren kasuan, erregistro profesional batean edo merkataritzako erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute eskakizun hori dagokion Estatuko legerian eskatzen denean.

- Enpresari ugari lizitaziora aurkezten baldin badira Enpresen Aldi Baterako Elkarketa eratuz, horietako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, ABEE bat modu formalean eratzeko konpromisoa helarazi beharko dute,

esleipendun suertatuz gero. Halaber, proposamenean ABEE elkarketako kide bakoitzak beteko duen xedearen zatia adieraziko dute, kaudimenarekin lotuta bakoitzaren betekizunak zehaztu eta egiaztatze aldera.

9.2- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikuluan kontratatzeko zerrendatzen diren debekurik ez izatearen berariazko adierazpen arduratsua.

9.3.- Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen berariazko adierazpen arduratsua.

9.4.- Atzerriko enpresek edozein ordenatako Espainiako epaitegi edo auzitegietako jurisdikzioaren mende jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duten gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, enpresa lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela ere bai.

9.5.-Kaudimena

1. Enpresariaren kaudimen ekonomikoa horrela egiaztatu behar da: urteko negozioen bolumena, azken hiru jardunaldietatik onenari dagokiona, gutxienez 222.000 euro.

2. Enpresariaren kaudimen teknikoa horrela egiaztatuko da: azken bost urteotan gutxienez antzeko bi obra eraiki izanaren ziurtagiriak aurkeztea. Kaudimena duela ulertuko da, gutxienez, 145.000 euroko (BEZ barne) eraikitze bi obra agertzen badira; alegia, gutxienez 145.000 euro (BEZ barne) obra bakoitzeko.

*** Dokumentazio hori guztiori egiazko kopian aurkeztuko da.**

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honetako espedientea, hari gaineratzen zaion dokumentazio teknikoa, pleguak eta dokumentazio osagarria Usurbilgo Udalaren **Kontratatzailearen Profilaren** bidez eskuratu ahalko dira, lizitazio honen iragarkia aipatu **Kontratatzailearen Profilean** argitaratuta agertzen den unetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu bitartean. Harremanetarako hona jo:

Joxe Martin Sagardia plaza, z/g – 20170 Usurbil
Tel. 943 371951 / Faxa 943 368167
Helbide elektronikoa: kontratazioa@usurbil.eus

Kontratatzailearen Profila: www.usurbil.eus

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira esklusiboki, 9/2017 SPKL legeko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunei jarraiki, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita HOGEITA ZAZPI (27) EGUN NATURALEKO epearen barnean, 14:00ak arte.

Proposamenak isil-gordekoak izango dira eta izaera hori bermatzeko neurriak hartuko dira proposamenak irekitzen diren unera arte.

Proposamenak modu elektronikoan aurkezteko beharrezkoak diren informazio eta zehaztapen teknikoak, dataren zifratzea eta baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman (www.contratacion.euskadi.eus) daude.

10.1. AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Lizitazio elektronikoaren erabiltzaileentzako Arreta Zentroa: 945016298 (7:45 - 20:00) bitartean.

Interneteko helbidea: www.euskadi.eus

Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

10.2. PROPOSAMENEN EDUKIA

Enpresa lizitatzaileek **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO ("A", "B" ETA "C")** aurkeztu beharko dituzte.

1)"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA" izendatuko da eta dokumentu hauek jasoko ditu:

I. eranskina: erantzukizunpeko adierazpen eredua.

2) "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "BALIOESPEN TEKNIKO BATEN BAITAKOAK" izendatuko da eta dokumentu hauek jasoko ditu: plegu admnistratiboetako 8.3, 8.4, 8.5 ataletan eta plegu teknikoetako 12. atalean zehaztutako baldintzak bete beharko ditu memoriak.

Artxibo honetan ez da sartu behar, inola ere ez, modu automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagokion ezein datu, "C" artxiboan barneratu beharko direlarik horiek.

3) "C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "MODU AUTOMATIKOAN ZENBATETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ARABERAKOAK" izendatuko da eta, hauek jasoko ditu:

Proposamen ekonomikoa eta berme-epearen iraupena zehaztea plegu honetako II. eranskin modura gaineratzen den ereduaren araberakoa.

11. ALDAGAI EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartzen.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia horrela osatuko da:

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, Alkatea, Presidentea
2. Lur Etxeberria Gurrutxaga,obrak eta mantenua zerbitzutako zinegotzia, batzordekidea
3. Garazi Etxeberria San Miguel, udal idazkaria, batzordekidea
4. Xabier Olano Jauregi, udal kontu-hartzailea, batzordekidea
5. Imanol Etxeberria, Udal aparejadorea, batzordekidea
6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko Idazkaria

Halaber, Mahaiak bertaratzea eskatutako udal teknikari arduradun guztiak bertaratu ahalko dira, aholkularitza lanak betetzeko.

13. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, honela jokatuko da:

1)"A" ARTXIBOA IREKITZEA:

“A” artxibo elektronikoa aztertuko da, aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, Kontratazio Mahaiak gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango du lizitatzaileak akatsak zuzen ditzan.

2) “B” ARTXIBOA IREKITZEA:

“A” artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, “B” artxiboa ireki eta aztertuko da.

Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta *streaming* bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez. *Streaming* bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html

- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

“B”artxiboa ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak dokumentazioa helaraziko dio hura baloratzeko ardura duen teknikariari, eta teknikari horrek balorazio txostena egin beharko du.

3) “ **“C” ARTXIBOA IREKITZEA:**

“B” artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, “C” artxiboa ireki eta aztertuko da.

Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta *streaming* bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez. *Streaming* bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html

- Gaztelaniaz**:** https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

14. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 150.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurkeztutako proposamenak kontratazio-organora bideratuko ditu eta proposamenarekin batera.

Kontratazio Organoak eskaintzak sailkatuko ditu eta eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailea deituko du, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean, hurrengo esku-hartzeak egin ditzan:

a. Kontratatzeko ahalmena eta kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa (9. klausulan adierazten dena) helaraztea.

b. Behin betiko bermea eratzea.

c. Kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboa adieraztea.

d. Erantzukizun zibileko eta eraikuntzako arrisku oroko poliza eta agirien kopia aurkeztea.

e. Egiteko azpikontratuen zerrenda aurkeztea, azpikontratatutako enpresa bakoitzak egiteko kontratuaren zatiak adierazita.

Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari kontratua esleitzea ez dagokionean horretarako

beharrezkoak diren baldintzak ez betetzeagatik, deialdi berri bati ekin aurretik, Administrazioak beste eskakizun bat egin diezaioke haren osteko enpresa lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran erreparatuz (behin ahalmena egiaztatzen ez duen enpresa baztertuta). Kasu horretan, azken horri hamar egun balioduneko epea emango zaio aurrez adierazitakoa bete dezan.

Kontratua dokumentu administratibo modura formalizatuta hobetuko da. Hori, beranduenez, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamabost egun baliodunean egin beharko da.

III.- KONTRATUA EGIKARITZEA

15. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua egikaritzeaz arduratuko den udal teknikaria, SPKL legeko 62. artikuluan aurreikusten diren funtzioekin, udal aparejadorea izango da.

16. KONTRATUA EGIKARITZEA

Obren kontratua zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denean hasiko da egikaritzen. Sinadura hori, beranduenez, 15 eguneko epean egin beharko da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Gainera, enpresa esleipendunak lanen programa bat aurkeztu beharko du, Kontratazio organoak onar dezan. Programa hori, beranduenez, hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko da kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta proposamenarekin aurkeztutakoa garatuko du, kontratuzko baldintza bakar bat ere aldatu gabe.

Kontratua kontratatutako enpresaren arrisku eta menturan egikarituko da eta hark ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan izandako galera, matxura edo kalteengatik, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko 239. artikuluan aurreikusitako behartutako kasuak salbuetsita.

Edozein kasutan, obrak Plegu honetan hitzartutako klausulak, hartan gaineratutako zehaztapen teknikoak nahiz azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako aipatu Legeko Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa zorroztasun osoz betez egingo dira. Bereziki, kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean egikarituko da. Hura izango da eskuduntza horiek izango dituena, hala idatziz nola ahoz.

Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotzi ahal zaizkien ekintza edo ez-betetzeen ondorioz kontratuaren jardun ona arriskuan ipintzen denean, Administrazioak aukera izango du hura egikaritzeko ordena ona lortu edo berrezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea eskatzeko.

17. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Kontratatutako enpresa lan arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko Segurtasun eta Higieneari dagokienez indarrean diren legezko xedapenak betetzera derrigortuta dago kontratuaren xede diren lanetan erabiltzen dituen langileekiko, Administrazioa ez-betetzearen ondoriozko erantzukizunetik salbuetsia geratuko delarik.

Enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du.

Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratatutako enpresak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta soldata hori ezingo da inola ere

izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

Kontratatutako enpresak kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei egiaz aplikatzen zaizkien laneko baldintzen inguruan eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

Klausula honetan jasotzen diren betebeharrak kontratuko baldintza berezitzat hartuko dira, eta horiek ez betetzea larritzat joko da eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 211.f) artikuluan aurreikusten den kontratuaren haustura ekarriko du berekin.

18. KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN ONDORIOZKO KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratatutako enpresa izango da kontratua egikaritzeko egin beharreko eragiketen ondorioz eragiten diren kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 196. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Horretarako, kontratua sinatu aurretik, enpresa esleipendunak polizaren kopia eta jarraian adierazten den aseguru-kontratuaren ordainagiria aurkeztu beharko ditu:

a. Eraikuntzako Arrisku Oroko poliza, egindako eta egiten ari diren obretan gerta daitezkeen kalteak estaltzekoa, Udala aseguratu modura jasoz, eta hurrengo estaldurekin:

   1. Sute, tximista, leherketa, lapurreta, espoliazio, talka, trebetasun falta, zabarkeria, egintza bandaliko eta asmo gaiztoko arriskuetatik, izadiaren arriskuetatik edota aipatu gabeko beste edozein arriskutatik eratorritako kalteak.

   2. Berme gehigarriak, ondorengoek eragindakoak:

   - Diseinu akatsa, fabrikatzailearen arriskua.
   - Aparteko orduek, obra hondakinak kentzeak, eraisketa lanak egiteak, agintariek hartutako neurriek eta abarrek eragindako gastuak.
   - Aurretiaz dauden ondasunetan eragindako kalteak.
   - Greba, matxinada eta terrorismoa.

   Eraikuntza aldian jatorria duen arrazoi batek eragindako galera edo kalte guztiak aseguratuta gelditukо dira, baita eraikuntza aldian nahiz beranduago obra kontratuan zehaztutako betebeharrak zuzen betetzeko egindako lanen ondorioz eragin daitezkeen kalte eta galerak ere.

   Polizaren mantenu-aldia, gutxienez, urtebetekoa izango da, obren harrera-egunetik aurrera.

a. Erantzukizun Zibileko poliza, alderdi hauetan: orokorra, patronala, gurutzatua eta bukatutako lanak, eta aseguratu modura sartuko dira kontratista, azpikontratistak eta Administrazioa, azken hori obren sustatzaile gisa, gutxienez, 1.000.000 euroko zenbateko bat bermatuz (eta 300.000 euroko azpi-muga biktima bakoitzeko).

19. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak aukera izango du kontratua aldatzeko, interes publikoko arrazoiak direla medio, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasu eta modutan.

20. HARRERA ETA BERME-EPEA

Obren harrera Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 210. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da. Hala, aldez aurretik Udal Zerbitzu Teknikoek azterketa egin ostean obren harrera proposatuko dute edo,

bestela, enpresa kontratistari argibide egokiak emango zaizkio idatziz hautemandako akatsak konpon ditzan, horretako epea adierazita.

Kontratua amaitu eta, gehienez, 30 eguneko epean obra hartzeko ekitaldi formal eta positiboa burutuko da.

Obrak harrera egiteko moduko baldintzetan ez badaude, hala adierazi beharko da berariaz eta, kontratistari akatsak konpontzeko argibideak emango zaizkio. Zuzenketa egiten ez bada, Administrazioak kontratistaren kontura utziko ditu eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du.

Halaber, URTEBETEKO epea ezartzen da, harrera-data formaletik zenbatzen hasita, eta enpresa lizitatzaileek epe handiagoa proposatzeko aukeraren kalterik gabe. Epe hori berme modura ipintzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta aipatu Legeko Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Haatik, obra suntsituko balitz berme-epea igaro ostean, eraikuntzako ezkutuko akatsen ondorioz, kontratistak kontratua ez duelako bete, hura izango da kalte eta galeren erantzulea hamabost urteko epe baten barruan harrera egiten denetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitutakoan kalte edo galerarik jakinarazi ez bada, kontratatutako enpresaren erantzukizuna erabat amaitutzat joko da.

21. EZ-BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

A) KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEEKIN LOTUTAKOA

Kontratatutako enpresa, berari egotzi ahal zaizkion arrazoien ondorioz, kontratua burutzeko epean (epe osoan nahiz, hala badagokio, epe partzialetan) berandutu balitz, Administrazioak erabaki hauetako bat har dezake, kasuan kasuko inguruabarretan erreparatuz: kontratua etetea, bermea galaraziz, edo zigorrak ezartzea (egunean euro bat kontratuko prezioko 1000 euroko).

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren % 5eko multiplo batera iristen direnean, kontratazio-organoak eskumena izango du kontratua eteteko edo beste zigor batzuk ezarriz harekin jarraitzeko.

B) PRESTAZIOAK MODU PARTZIALEAN EGIKARITZEAREKIN EDO AKATSEKIN BETETZEAREKIN LOTUTAKOA

Kontratatutako enpresak, berari egotzi ahal zaizkion arrazoien ondorioz, kontratua partzialki egikaritzea bete ez balu edo kontratuan zehaztutako prestazioak akatsekin bete balitu, Administrazioak aukera izango du, berak nahieran, erabaki hauetako bat hartzeko: kontratua etetea, bermea galaraziz, edo zigorrak ezartzea (egunean euro bat kontratuko prezioko 1000 euroko), eragindako kalte eta galeren ondoriozko indemnizazioarekin batera.

C) KONTRATUKO BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEAREKIN LOTUTAKOA

Kontratatutako enpresak, berari egotzi ahal zaizkion arrazoien ondorioz, kontratuko baldintza bereziak bete ez balitu, Administrazioak aukera izango du, berak nahieran, erabaki hauetako bat hartzeko: kontratua etetea, bermea galaraziz, edo zigorrak ezartzea (egunean euro bat kontratuko prezioko 1.000 euroko), eragindako kalte eta galeren ondoriozko indemnizazioarekin batera.

D) AZPIKONTRATATZEKO BALDINTZAK EZ BETETZEAREKIN LOTUTAKOA

Kontratistak plegu honetako 22. klausulan azpikontratatzeko aurreikusten diren baldintzak betetzen ez dituenean zehapen bat ipiniko da, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50era artekoa.

Udalak kontratua etetea erabaki dezake, azpikontratazioaren bidez kontratistak kontratuaren betebehar nagusia betetzen ez duenean.

22. AZPIKONTRATAZIOA

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 215. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta eskatutako betekizunak betetzearen baitan, enpresa esleipendunak kontratua partzialki egiteko hirugarrenekin itunak egin ditzake.

Azpikontratuak egin ahal izateko, kontratatutako enpresak azpikontratu horien berri eman beharko dio Administrazioari idatziz, azpikontratatutako enpresak egin beharreko kontratuko alderdiak adierazita.

Gainera, enpresa kontratistak nortasuna, harremanetarako datuak eta azpikontratistaren legezko ordezkaria adierazi beharko dizkio administrazioari, hark burutuko duen kontratuaren zatia egikaritzeko duen gaitasunaren justifikazioarekin batera.

Edozein kasutan, enpresa esleipendunak kontratua egikaritzeari dagokion erantzukizun osoa hartuko du beregan Udalaren aurrean, enpresa azpikontratistarik balego, horiek arto sozial edo lanekoan dituzten betebeharrak betetzearekin lotutakoa barne.

Enpresa kontratista, azpikontratatutako enpresei dagozkien datuak eskatu ostean, enpresa horiek ere obrak egikaritzean lan arloan, Gizarte Segurantzari dagokionez nahiz laneko segurtasun eta osasunarekin lotuta aplikagarri zaizkien indarreko legezko, arauzko eta ohiko xedapenak aplikatzen dituztela justifikatzeko moduan egon beharko da.

Enpresa azpikontratistek, lanei ekin aurretik, kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute.

Enpresa azpikontratistek, kontratua gauzatzen den bitartean, langile bakoitzari dagokion kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko dute, eta soldata hori ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

23. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua lagatzeko aukera egongo da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 214. artikuluko muga eta betekizunekin.

24. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK

Kontratua eteteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 211. eta 245. artikuluetan ezartzen direnak.

25. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagozkion kontratua interpretatu, hura betetzean agertzen diren zalantzak ebatzi, kontratua interes publikoko arrazoien ondorioz aldatu, hura etetea adostu eta haren ondorioak zehazteko eskumenak, Sektore Publikoko Kontratuen Legean nahiz hartako Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barnean eta horietan jasotako betekizun eta ondorioekin.

26. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO BETEKIZUNAK

Enpresa esleipendunak administrazio kontratatzailean hizkuntzari dagokionez berez aplikatzen diren arauen arabera jardungo du, kontratuko xedearekin lotutako zeregin guztietan; hori dela eta, enpresak administrazioarekin dituen harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoa, euskaraz izango dira.

Errotuluak, oharrak, seinaleztapenak eta hala badagokio ipintzen diren gainerako informazio orokorrak piktograma bidez egingo dira, egoki bada, euskaraz idatzitako azalpen mezu batek lagunduta. Piktogramak erabiliz egin ezin baldin bada, euskaraz egingo dira, betiere, mezu ezagun eta ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebidunetan emango dira, euskarari lehentasuna emanez, aldez aurretik beti administrazioarekin adostuta.

27. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO BALDINTZAK ZEIN NEURRITAN BETE DIREN JARRAITZEA

Kontratua sustatzen duen administrazio-unitatea izango da bertan ezarritako hizkuntza-baldintzak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egiteaz arduratuko dena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen antzera eta antzeko epeekin, Euskara Zerbitzuari horren berri emanez. Azken horrek onarpena eman edo neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 62. eta 210. artikuluekin bat etorriz:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egingo du, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratuaren arduradunak, jarraipen espezifikorako euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzentzekoak.

28. EGIKARITZEAREN BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua egikaritzeko jarraian adierazten diren baldintza bereziak ezartzen dira. Horiek urratzen baldin badira zehapenak ipiniko dira, kontratuzko funtsezko betebehar izaera ematea berariaz zehazten diren horietan izan ezik, horiek urratzea kontratua eteteko arrazoi izango delarik.

28.1. Egikaritzearen baldintza bereziak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arlotan

Enpresa kontratista lan arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez indarrean diren legezko xedapenak betetzera derrigortuta dago kontratuaren xede diren zerbitzuetan erabiltzen dituen langileekiko, Administrazioa ez-betetze horren ondoriozko erantzukizunetik salbuetsia geratuko delarik.

Gainera, enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du.

Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratatutako enpresak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta soldata hori ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

Kontratistak ezingo du aldaketarik egin obrara atxikitako langile teknikoei dagokienez, aldez aurretik Udalaren baimenik ez baldin badu. Langile teknikoak ordezteko pertsonek, gutxienez, eskaintzan emandakoen baliokide diren ezaugarri profesionalak bete beharko dituzte.

28.2. Egikaritzearen baldintza bereziak hizkuntzari dagokionez

Errotuluak, oharrak, seinaleztapenak eta ipintzen diren gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira, euskaraz idatzitako azalpen mezu batek lagunduta. Piktograma bat erabiliz egin ezin baldin bada, euskaraz egingo dira mezu ezagun eta ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak baldin badira, elebitan egingo da, euskarari lehentasuna emanez, aldez aurretik administrazioak hala baimenduta.

28.3.- Ingurumenari dagozkion baldintza bereziak

Erabilitako zur eta zurezko produktu guztiek (barnean direla zur-zuntzezko erakusmahaiak, kontratxapatuak, DM eta antzeko beste produktu batzuk) baso-ustiapen jasangarrien jatorri-bermeak izan beharko dituzte. Berme horiek baso-kudeaketa jasangarriaren ziurtagiriaren bidez egiazta daitezke, FSC edo PEFC ziurtapen-sistemen edo beste ziurtapen-sistema baliokide baten arabera.

28.4. Ez-betetze kasuan jarraitzeko prozedura

Enpresa kontratistaren batek ez-betetzeren bat gauzatu duela uste bada, eta hori egiaztatzeko LGSI ikuskapeneko ikuskari baten esku-hartzea behar denean, kontratazio-organoak, aldez aurretik Kontratuko zuzendariak proposamena luzatuta, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskapenari emango dio horren berri, hura laneko arau-hauste modura hartu behar ote den zehazte aldera.

Ez-betetzearen berrespena lan arloan zehapena ipintzeak ekarriko du LGSI ikuskapeneko ikuskariaren esku-hartzearen ondotik edo Epai judizial bat emango da, horietakoren bat irmoa denean.

Gainerako ez-betetzeetan, berresteko Lan Ikuskaritzako ikuskari baten esku-hartzea beharrezkoa ez denean, espedientea kontratuko zuzendariak proposatu ondoren abiatuko da.

Kasu guztietan, espedientea eten aurretik, entzunaldia emango zaio enpresa kontratistari.

Isun horiek ordainketa oso edo partzial gisa kontratistari ordaindu beharrekotik dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira edo, hala balegokio, eratutako bermetik, aipatutako ziurtapenetatik kendu ezin direnean.

Gainera, atal honetan jasotako betebeharrak betetzetik eratorritako gastuak enpresa esleipendunaren kontura izango dira eta kontratua egikaritzako eskainitako prezioan barneratuta egongo dira.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak, plegu honetan oinarrituta egindakoak, izaera administratiboa izango du, eta kontratuan aurreikusten ez den guztian jarraituko zaio arau hauetan xedatzen denari: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, zati batean garatzen duena 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuena, baita ere, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, onartua 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, eta gainerako arauak, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkionak herri administrazioen kontratazioari.

Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren eta espedientera gaineratutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik egongo balitz, Plegu honetan xedatutakoa lehenetsiko da.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak konpondu daitezke arbitrajearen bitartez, indarrean dagoen legerian xedatutakoarekin bat etorriz.

Usurbilgo Udala

I ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA
(“A” ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

_____, zeinak jakinarazpenak jasotzeko helbidea hemen duen: _____, _____, ___zk., eta IFZ _____, _____ enpresaren, IFZ _____ ordezkari gisa,

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

LEHENA. USURBILGO SUTEGI LIBURUTEGIKO IRAKURKETA GELAREN BERRIKUNTZA GAUZATZEKO OBRA KONTRATUAREN lizitazioan parte hartu nahi duela.

BIGARRENA. Zehaztutako kontratuak 9/2017 Legearen 140. Artikuluaren lehenengo atala betetzen duela, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bitartez Espainiako araudi juridikoari egokitzen zaizkion Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, obren esleipendun izan ahal izateko, are zehatzago:

- ❑ Izaera juridikoa duela eta, dagokionean, ordezkaritzakoa.
- ❑ Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela.
- ❑ Kontratatzea debekatuta ez duela, 9/2017 Legearen 71. Artikuluan, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, bildutakoaren arabera, eta indarrean dauden xedapenek inposatutako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela.
- ❑ Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikzioaren mende dagoela, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen arazo guztientzat eta, uko egingo zaiola, edozein kasutan ere, lizitatzaileari dagokion atzerriko edozein foruri.
- ❑ Hurrengoa dela jakinarazpenak bidaltzeko erabiliko den helbide elektronikoa: _____

- ❑ Adierazpen honetan eskatzen diren dokumentu guztiak indarrean dituela egiaztatzeko konpromisoa duela, eta kontratua esleitzen bazaio, edo eskatzen zaionean aurkeztu ahal izango dituela.

Eta hala ager dadin, adierazpena sinatzen dut.

Usurbilgo Udala

II. ERANSKINA: MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA ("C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

Plegu hauen objektu diren obra egiteko hurrengo eskaintza egiten duela:

- **Prezioa**. Konpromisoa hartzen dudala aipatu lana ondorengo prezioan egiteko:

	AURREKONTUA	**PROPOSAMENA (2 hamartar)**
EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA	102.796,49 euro	
Gastu Orokorrak (% 13)	13.363,54 euro	
Industria-mozkina (% 6)	6.167,79 euro	
KONTRATAREN EXEKUZIO AURREKONTUA	122.327,82 euro	
B.E.Z. (%21)	25.688,84 euro	
GUZTIRA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA	148.016,66 euro	

Eskainitako kontratua gauzatzeko aurrekontuak murrizketa-portzentaje bat dakar kontratuaren balio zenbatetsiaren gainean: %..... (2 hamartarrekin).

(Nolanahi ere, eskaintzan kontratua gauzatzeko adierazitako aurrekontua izango da prezioaren puntuaziorako kontuan hartu beharreko zenbatekoa, kontzeptuen batura okerra izan arren. Halaber, kontratua gauzatzeko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsiaren gaineko prezio-murrizketaren ehunekoa bat ez badatoz, unitateko prezioei aplikatu beharreko ehunekoa eskaintzan adierazitako kontratua gauzatzeko aurrekontutik sortzen den ehunekoa izango da).

Usurbilgo Udala

- ❑ **Berme epea**. Markatu X batekin lizitatzailearen aukera. Horrela balioetsiko da (tarteko epeak edo urtebetetik beherakoak ez dira balioetsiko):

Urtebeteko bermea (legezko epea)		0 puntu
Guztira 2 urteko bermea (legezko epea baino 1 urte gehiago)		10 puntu
Guztira 3 urteko bermea (legezko epea baino 2 urte gehiago)		20 puntu

Eta jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut.